

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Eguena / 2004ko martxoaren 18a / 666. zenbakia

ETA GAINERA,
TELEBISTA
GEHIGARRIA

Asteon



NUBI ELKARTEA SAHARARREN LAGUNAK

ORAIN ETA HEMEN: HAUTESKUNDEEN EMAITZAK/7 • KULTURA: GILKITXARO ANTZERKI TALDEA/11

ARGAZKIA: IKER BARANDIARAN. AZALA: ALEX AZKARATE

EDERTASUN GIDA/24

Orain

Debagoiena *esku-eskura*

Goiena.net

Debagoieneko ataria Interneten



zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...

SARRERA DOAN

Aste bukaerako
plana zabal-zabalik

Eguenetan,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Amagoia Lasagabaster

Zozketa

Bi lagunendako afaria
Diskoak
Kontzertuak eta antzerkia

943 71 23 93
UTZI MEZUA!



**Ikusiko
duzu!**

SARRERA DOAN
Laguntzaileak:
Bilintx, Arteaga landetxea, Jade, Gili gili




KALEINKESTA/ Zapaterokin kanbixorik egongo dala uste dozu?



JOSE MIGUEL PEREZ
Langillie



GORKA ARETXAGA
Langillie



JOSU SAN MIGUEL
Langillie



MIREN LOREA LANA
Langillie



SANDRA PRESA
Iksasie



MARIA ANJELES NAVARRO
Langillie

Neuk ez dot pentsetan gauzak aldatuko dienik. Gureko neuke, baiñe ez dot uste. Lehen egindako hankasartziek egingo dittue barriro be, eta denporiekin kanbixue egongo da barriro be.

Ez dot uste gauzak larregi aldatuko dienik. Txarrera juetie ez da gatxa, txarrera juetie ezinezkue da. Euskal Herrixen alde egitteko gureko neuke, bai politikoki eta baitte sozialki be.

Ez dot uste Euskal Herri-xendako aldaketa nabarmenik egongo danik. Orokorrien espero dot kanbixu hau onerako izetie. Gasteizko Gobernuen berba egin biherko leukie.

PP alderdixek egin dauen lana baiño hobie egittie espero dot PSOEek, hori gureko neuke, behintzet. Zortzi urte nazkagarri pasau eta gero, neuk esperantza hori dauket.

Ez dot uste gauzak asko aldatuko dienik. Gobernuen dirue beste modu baten banaketie gureko neuke, eta gerra gehixautan ez sartzie. Baiñe ez dakit PSOEek holarik egingo dauenik.

Neuk uste dot kanbixue egitteko ahalegiñe egingo dauela, eta lehengo hankasartziek ez errepetiduten ahalegindduko die. PPkin baiño dialogo haundixae egongo dala uste dot.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK HARRIAK BOTATZEN DITUZTE Aspalditik, noizbehinka, ezezagun batzuek harriak botatzen dituzte Santa Barbaratik Otalora kalera. Behin baino gehiagotan autoak jo izan dituzte, eta guk daki-gula behintzat oraindik ez dute inor zuzenean harrapatu. Ingurune horretan autoak aparkatzen dituzten lagun batzuk oso haserre daude, eta hori agerraraztea eskatu digute.

ETABARRUAN...

KIROLA / 10

Mondrak sei puntu jokoan

Mondra futbol taldeak bi nor-gehiagoka jokatu-ko ditu asteburuan, tartean, derbi bat.

GAZTEAK / 13

Herri Eskolak egingo dituzte

Martxoaren 25ean, eguena, Iksasle Abertzaleak taldeak Herri Eskolak egingo ditu Arrasaten.

GAZTEAK / 13

Kontzertua gaztetxean

Etzi, zapatua, Jauko Barik eta Motorsex musika taldeek kontzertua egingo dute gaztetxean.

ASTEKO DATUA

%20,4

IGO DA BOTO EMAILEN KOPURUA ARRASATEN

Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan Arrasateko boto emaileen kopurua asko igo da. 2000ko hauteskundeetan %52,9 izan zen. 2004an, berriz, %73,34 izan da.

BESTEKE SANA

“Pilota finalean ez nuen sorpresa handirik hartu. Nik uste nuen Martinez de Irujok lan gehiago emango ziola Titini. Baina oso urduri ikusi nuen, eta oso azkar Titinen jokoan sartu zen. Titini, halako pilotak utziz gero, tantoak oso azkar bukatzen ditu (...). Askok esperantza eta ilusioa genuen Martinez de Irujok zer egingo zuen ikusteko, baina oso urduri zegoen, ez zuen bere lekua aurkitu eta normalean baino pilota gehiago galdu zituen. Tanto politikak egin zituen, baina ez zen nahikoa izan. (...) Partidua berehala bukatu zen. Titinek ez dio aurkariari abantaila bat ere ez ematen. Aurkaria bi tantotan utzi ahal badu, ahalegin guztiak egingo ditu. Partidu guztietan dena ematen du”

JUANITO ARRIARAN
ARRASATE IRRATIA/2004-03-15

HERRITARREN BERBAK/ Oihan Zubizarreta



Nahastuta

Nahastuta nabil. Hitzak ezin elkarriz josi. Ezin esaldi bat osatu... Egunotan zerbait idatzi beharrak amorratu egin nau.

Latza, larria, beltza izan da iragan asteburukoa. Hitz bakarrean deskribaezina, esaldi gutxitan kontaezina. 200 hildako Madrilan. “Eta nork?” galde-tzen dute. Batzuek azkar zekiten hori, itxuraz. Ia denek, esaten zirenak sinistu guran edo, inorenak esaten ibili ziren, demokratikak, bakezaleak. Bejondeiela! Asteburuko “polizi nobela beltzaren” hitzaurrea ederki asko idatzi dute hizki beltzez... putreak lez batzuen inguruan hegan, miserableak, inondik inora.

Beltzak, nobelaren ondoko orriak ere. Polizia Nazionalak Anjel erail du Iruñean, tiroz. Ondotik, espainiar polizi autonomikoak Kontxi erail du Hernanin. Euskal preso politikoen aurkako erasoak nonahi, mehatxuak, erasoak,

jazarpena hainbat euskalduni, atxilotuak... Errudunak hauek, piztiak, basatiak, ankerrak... Hitzaurreak ez du huts egin.

Ideiak buruan dantzan, sentimenduak, usteak... Hitz gutxitan kontatu ezinezkoak agian. Izenak buruan, siglak, pertsonak, bozkak, atxilotuak, eserlekuak, hildakoak, erailak, poliziak... bakoitzari abizenak jarri guran, azalpenak bilatu guran. Arduragabeak, biktimak, errudunak, miserableak, putreak, zintzoak, hiltzaileak, galtzailak, lotsagabeak, zuhurrak...

Gura nuke, nobelaren hurrengo orrialdeak gezurra balira, fikzioaren fruitu. Baina ez dirudi nobelak epilogorik duenik. Azken berri bat jaso dut, Enrike Letona herritarra, beste behin ere, atxilotu dute... Guztiok dugu zer egin azken nobela beltz honek bere apala bilatu dezan... Eta “panfleto” bat idatzi dudala esango du inork... horren nahastuta ote nabil?

“Latza, beltza izan da iragan asteburukoa. Hitz bakarrean deskribaezina, esaldi gutxitan kontaezina”

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martinez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zehitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Erreka estali zuten Maalan glorieta egiteko



Maalako glorieta egiteko lanek Aramaio erreka gehiago estaltzeko beharra ekarri zuten. Hondeatzeko makinek lan handia egin zuten erreka bideratzen, erreka estaldura bost metro luzatu behar zuten-eta. Biribilunearen lanek 30 milioi pezeta-ko aurrekontua izan zuten.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Kukumixo"



Makurtuta, kakaginan bezala.
—Kukumixo egon, jarri.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Xabier Sarasuari elkarrizketa

Hauteskundearen ostean, kanpaina zer moduz moldatu den galdetu diogu Xabier Sarasuari. Aretxabaletarra Aralar-Zutik koalizioaren Kongresurako zerrendaburua izan da Gipuzkoatik. Lehenengo aldia zen Sarasuak halako kanpaina baten parte hartzen zuela. Elkarrizketa hori egubakoitz, zapatu eta domekan eskainiko dugu, 10:15ean. Jasone Osorori egingakoa ere errepikatuko dugu hiru egunotan. Jasone idazlea da, baina telebistan ere badabil.

Kontu kontari loreen gainean

Datorren egunean, 11:00etan, Eusebio Inarrak eta Espe Lizarralde loreen gainean egingo digute berba. Orain dela urte batzuk, lore-zalatasuna herrian zenbaterainokoa zen kontatuko digute arrasatear biek. Hamabostean behin ibiltzen dira biak herriko irratan. Martitzenean, berriz, abokatuaren txanda izango da. 11:00ak baino lehentxeago, hainbat aholku emango ditu Emun kooperatibako Leire Okarantza abokatuak.

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUENA, 18
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 19
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- ZAPATUA, 20
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- DOMEKA, 21
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 22
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- MARTITZENA, 23
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 24
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUENA, 25
Español, Araba etorb, 14 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa
- Arrasate
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZIA
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILIAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTERRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parroikia
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Frantzisko eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parroikia
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

GURASOENDAKO BERBALDIAK

Astelehenean, *La motivación al estudio* berbaldia egingo dute Erguingo ikastetxean, 18:00etan. Eguenean, *La autoestima* berbaldia, Bedoñaben (San Andresen), 18:00etan.

1958KO KINTOAK

1958ko kintoek (1937an jaiotakoek) batzarra egingo dute martxoaren 27an. 12:30ean meza izango dute. Horren ostean, txikiteoa eta bazkaria Musakola Hostalean. Interesatuak eman izena lehenbailehen, eta 20 euro ordaindu. Riviere (943 79 10 57).

1934KOEN BATZARRA

Martxoaren 27an, 1934an jaiotako gizonezkoek eta emakumezkoek urteko batzarra egingo dute. 12:30ean, meza izango dute San Frantzisko elizan. 14:30ean, Udalpe elkartearen bazkalduko dute. Interesatuok Bengoa tabernan eman izena, martxoaren 24a (eguaztana) baino lehen, eta hamar euro ordaindu.

1940KO EMAKUMEA

1940an jaiotako emakumeek bilkura egingo dute martxoaren 27an. 14:30ean, bazkaria izango dute Musakola Hostalean. Izena eman Hiren edo Begoña lurrindegian martxoaren 20a baino lehen, eta 15 euro ordaindu.

AEDrenAGENDA

KULTUR ERROTA

Martxoaren 26an, Gilkitxaro antzerki taldeak *Elevator* ikuskizuna egingo du, Jai Zale tabernan, 23:00etan. AEDk eta Kultur Errotak antolatuta dute.

FILM LABURREN EMANALDIA

Apirilaren 2an, egubakoitz, film laburren emanaldia egingo dute Amaia Udal Antzokian. AEDk eta Topaguneak antolatuta.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

HAUGIROA!

MINIMOA	-3 °C
Eguena, 11	
MAXIMOA	24 °C
Astelehena, 15	
ASTEKO EURIA (l/m²)	18,7 L

	Max.	Mín.	Euria
Eguaztana, 10	6 °C	1 °C	- l/m²
Eguena, 11	16 °C	-3 °C	5,5 l/m²
Egubakoitza, 12	12 °C	9 °C	12,6 l/m²
Zapatua, 13	12 °C	7 °C	0,6 l/m²
Domeka, 14	21 °C	3 °C	- l/m²
Astelehena, 15	24 °C	0 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA
19:10 Planning Prest

ZAPATUA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Xabier Sarasua; Jasone Osoro, idazlea eta kazetaria; Agurte Juldain, sahararren ingururuan...

DOMEKA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: ezmerideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagurak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

MARTITZENA
19:10 Iluntzean: Natxo de Felipe

EGUENA
19:10 Noraezean

ASTEABIHITZETAN

Etorकिन herena euskara ikasten dabil

Arrasateko Udalak euskara eskola bereziak antolatu ditu kanpotik etortzen diren umeendako. Hain zuzen ere, ume etorkinak euskalduntzen laguntzea dute helburu eskola berezi horiek.

Arrasatera etorri diren kanpoko haurrak, baina, nagusiekin etorri dira eta horiendako ere zerbitzu berezia dago. Arrasaten 44 dira euskara ikasten dabiltzan etorkinak. Horrek esan gura du etorkinen herena euskara ikasten dabilela.

Truke Programako kideak Arrasaten


Mundukide gobernuz kanpoko erakundeak eta HUHEZIKo Fakultateak antolatutako Truke Programako kideak Fagorren izan ziren egubakoitzean. Asiatik, Afrikatik eta Ameriketatik etorritako lagunek aukera izan zuten Fagor Ederlaneko planta gertutik ikusteko.

Zapatuan Bizkai aldera joan ziren turismoa egitera, Urdabai ingurua bisitatu zuten, eta astelehenean Saiolanen izan ziren, hango enpresak ezagutzen. Martitzenean, berriz, MCCko Jesus Cataniarekin elkartu ziren.

Debagoieneko merkatariak bat eginik

Debagoieneko merkataritzak bulegoak ibarreko dendariendako hezkuntza plana jarri du martxan. Eta, plan horren barruan bada nobedaderik: Debagoieneko merkatari elkarte guztiak batzen diren lehen aldia da.

Merkataritza-gune handiei aurre egiteko herriko dendariak elkarlanean ibiltzearen ideia ez da berria. Helburua bezeroei zerbitzu hobea eskaintzea da, eta horretarako urtean zehar hainbat ikastaro antolatzen dituzte. Aurtengo hezkuntza plana hilabete honetan hasiko dute, eta Debagoieneko lau merkatari elkartetan bat egingo dute hezkuntza plan horretan.



Fagor Arrasate Holandan lanean

Fagor Arrasatek luzetarako ebakidurako linea berria jarri du Holandan, Dingemans enpresan. Enpresa horrek erai-kuntzarako osagarri metalikoak egiten ditu eta Fagor Arrasatek jarri berri duen linearen zeregina da ijertzi edo laminatutako altzairua prozesatzea.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Zorabiatzeko garaiak

Joan den astea oso gogorra izan zen, zentzu guztietan. Gauza larregi gertatu ziren oso denbora gutxian. Madrilgo sarraskiak lur jota utzi zituen milioika lagun, eta euskaldunok bereziki asko sufritu genuen. Hainbeste hildako imajinatzeaz gain, sarraski hori ETArek ekintza izatearen susmoak izugarritziko mina eragin zigun; mina,

zeharkako erruduntasun sententzia eta beldurra ere bai. Azkenean, Al Qaeda izan dela argitu duten arren, *A por ellos* horren oihartzuna gertu entzun dezakegu. Hori eta mairuaren ehiza ere bai. Gizajoak, euskaldunak eta mairuak!

Eta horra hor, lehenengo kolpeak. Hauteskondeen bezperan, polizia nazional batek okin bat hil zuen

Iruñean, poliziaren emazteak okinarekin izan zuen politika-eztabaida baten erruz. Domekan, hilketa horri protesta egin zioten Hernanin, eta Ertzaintzak *esku hartzean*, emakume bat bihotzekoak jota bertan hil egin zen.

Aznar eta Rajoy begi bistatik kendu ditugu. Bada zerbait! Baina hauteskondeen biharamunean Letonari erakutsi zioten gauzak ez direla oraindik asko aldatu. Beharko luke!

ASTEKOIRUDIA



AMAGOIA LASAGABASTER

ENRIKE LETONA BERRIRO ATXILOTU, ETA 12.000 EUROKO BERMEPEAN ASKATU DUTE

Astelehen gauean zoritxarreko beste albiste batek astindu gintuen. Auzitegi Nazionalako Lehenengo Epaitegiaren aginduz, Enrike Letona arrasatearra atxilotu egin zuten, amarekin etxetik aldatzeko lanak egiten zebilela. Enrike Letona atxilotzen duten hirugarren aldia da. Martitzenean Garzon epaile-

ak, deklaratu ostean, 12.000 euroko bermea ordaintzeko baldintzarekin libre uzteko agindua eman zuen. Harridura eta haserre handia sortu zuen herrian Enrike Letona atxilotu izanaren albisteak, askok eta askok Letonarekin bidegabekeriak egiten dabiltzala uste dute-eta. /I.B.

Gorka ileapaindegia
peluqueria

Orduetgia:
Astelehenek-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

LAKEI

Bonaventure
Diesel
Pepe
Levis

Otalora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

Garagardo ona, giro hobea

TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

M14 / HAUTESKUNDEAK



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Alderdi sozialistako kideak pozik Arrasateko egoitzan, hauteskundeetan lortutako emaitzak jakin eta gero.

EAJ nagusitu da Arrasaten; PSE-EE bigarren indar moduan sendotu da

UBANE MADERA

Egun batzuk lehenago aurrez ikusten zena bete egin zen Arrasaten domekako hauteskunde saioan: EAJ irabazi egin du eta haren atzetik dezente gertu PSE-EE alderdia geratu da. Ezker Batuaren aldeko botoek nabarmen egin dute gora.

Ibar osoan moduan, Arrasaten ere EAJ alderdia gailendu zen domekakoan. Hori bai, alderdi sozialistak eskuratutako datuei begiratuz gero, EAJ botoen %28,7arekin nagusitu dela ikus daiteke; eta PSE-EE atzetik datorkiola, bi puntuko aldearekin; botoen %26,15arekin, hain zuzen ere.

Bestelakoan artean, eta Arrasatekoari begiratuz gero, aipagarria da Ezker Batuak gora egin duela nabarmen. Hain zuzen ere, ia bikoiztu egin ditu 2000ko hauteskundeetan lortu zituen emaitzak; eta udal hauteskundeekin alderatuta, boto kopuruari etsi egin dio.

Bergarako ekimenaren aldeko botoei dagokionez (berez balio barioak izan arren), zailtasunak zailtasun eta legez kanpo dagoen alderdia izan arren, asko izan dira. Arrasaten, hirugarren indarra izango litzateke.

Eusko Alkartasunari begiratzen badiogu, hortxe-hortxe ibili dela ikusiko dugu. 2000ko hauteskundeekin alderatuta, apur bat behera egin du, baina, gutxi. Eta Aralarri dagokionez, emaitza politik eskuratu ditu: boto-


en %9a. Nahiz eta Gipuzkoa mailan nahikoa ez izan Xabier Sarasua aretxabaletarra Madrilera eramateko.

Bukatzeko, azken egunotan aurrez ikusten zena bete egin da eta PPK ia erdira jaitzi du boto kopurua: %21etik %11,5era.

PSE-EE ETA EAJ: BALORAZIOAK

Kontuak kontu, EAJ alderdia izan da nagusi Arrasaten. Inazio Lakuntzak GOITBri esandakoaren arabera, oso pozik daude lortutako emaitzekin; uste dute jendearen babes handia lortu dutela, gauzak ondo egiten dituztelako.

Eta esandako moduan, PSE-EE alderdia izan da bigarren indarra. Paco Garcia bozera maileak zera adierazi digu, besteak beste: Zapaterok demokrazia berreskuratuko duela, PSO-Ek aurkeztutako programa bete araziko diotela Zapaterori eta oro har, ongizatearen alde egingo dutela. Nabarmendu zuen PSO-Ek gizarte guztiarendako gobernatuko duela, eta Euskadiri dagokionez, elkarrizketa bidea landuko dutela berriro.



UDAL HAUTESKUNDEETAKO BOTOEN BANAKETA AUZOZ AUZO

Auzoetan, bitxikeria moduan aipa daiteke ezohiko alderdien artean, Partido Humanistak irabazi duela boto gehien: 16; eta Centro Democrático Social-ek, berriz, 11.

	Erdialdea	Santa Marina	Musakola	S. Andres	Uribarri	Auzuneak
EAJ	1.593	189	441	443	779	136
PSE-EE	547	696	354	666	974	24
EB-IU	394	270	176	222	374	22
PP	348	256	126	301	358	48
EA	627	74	190	179	299	56
ARALAR-ZUTIK	434	54	120	134	341	38

LABUR

Atxilotu bat eta istiluak izan dira Arrasaten

Domekan, protesta ekitaldiak egin zituzten Arrasaten. Hain zuzen ere, joan den zapatuan Iruñean Angel Berrueta uste poliziak hil izana salatze eta domekan Hernanin gertatutako Kontxi Sanchizen heriotza salatze ziren ekimenak. Hala, arratsaldean pneumatikoekin barrikada bat egin zuten zenbaitzuk Bizkaia etorbidean, eta su ematen ahalagindu ziren. Ekintza horiek zerikusia zuelakoan A.U.R. 21 urteko arrasatearra atxilotu zuen Ertzaintzak. Gau komisarian pasatu eta gero, biharanunepailearen aurretik pasatu zen Bergaran, eta hark kargu barik libre utzi zuen. Bestalde, aipatutako bi heriotzak salatze, martitzenean (hilak 16) ordu laurdeneko lan uztea deitu zuen LABek. Horrekin bat eginez, zenbait enpresatan eta ikastetxetan langileak eta ikasleak kalera atera ziren protesta egitera. Arrasaten, esaterako, hala egin zuten Asmobi, Emunen, Mugarrin, Lucio Garain eta AGAn. Fagor taldearen lan-tegietan ez zuten batzarririk egin, baina, libre utzi zieten langileei lanari utzi edo ez erabakitzen. Bukatzeko, etxe honek, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak bat egin zuen deialdiarekin. Era berean, eguerdian jende dezente elkartu zen udalarekin aurrean eta Otxaloran; hain erreprenta itxi zuten une batean.

Jakin-mina nagusi hauteskundeetan biharanunepailean

Duda barik, aurtengo hauteskundeek ikusmin handia piztu dute herritarren artean. Horren seinale, biharanunepailean kioskoetan saldu zen egunkari kopurua. Balantzategiaren kioskoan Rosa Maiztegi Arrasate Irratiari adierazita koaren arabera, normalean egunkari bakarra erosten duenak, astelehenean hiru erosi zituen: betikoa, Madrilgo bat eta Asteleheneko Goienkaria. Izan ere, aurtun, berritasun moduan, eta gainerako egunkariak moduan, Asteleheneko Goienkaria-k hauteskundeetan berri zabala eman zuen; horrelakoetan ohi denez, herritarri herriko datuak jaso zituen Asteleheneko Goienkaria-k xehetasun osoarekin. Portaloiko kioskoan Jon Arriaranek, berriz, esan zuen egunkari delako gehiago saldu zela, baina, era berean, jendeak sarrarazioa ere bazeukala, komunikabide ugariatik jasotzen du-eta informazioa: Internet, irratia, telebista...

ELKARRIZKETA

AGURNE JULDAIN/NUBI-KO KIDEA

“Zerbait gehiago egin gura genuela-eta erabaki genuen taldea sortzea”

UBANE MADERA

Orain dela gutxi, talde berri baten gainean berba egin genuen: NUBI, Arrasateko Sahararen Lagunen Elkartea. NUBIko kide Agurne Juldainekin izan gara. Besteak beste esan digu *nubi* berba bat dela; hassanieraz laguna.

Sortu berri duzue elkartea, ezta?

Bai, elkartea bai. Baina ideia lehenagotik dator. Saharar umeak irailan joan ziren, eta orduan gure artean elkarte bat sortzeko aukeraren gainean berba egiten hasi ginen. Gero, abenduan, elikagaiak batzen ibili ginenean, erabaki genuen zerbait egin behar genuela, guk zerbait gehiago egin gura genuelako. Batez ere, indar gehiago lortzeko da.

Dena dela, taldea sortu baino lehen talde moduko lana egiten zenuten, ezta?

Bai, joan den uztailean eta abuztuan umeak etorri zirenean, ez genuen elkar ezagutzen. Ni neu Udalaren eta familien arteko zubia nintzen. Hala, ekintzak egiten-eta ibili eta gero, harremana sendotzen joan zen.

Indarra lortzeko asmoaz gain, bestelako helbururik badu elkarteak?

Bai. Oraindik hasten gabilta, definitzen. Baina, hasierako helburuak dira Udalarekin elkarlana egin Oporrak Bakean izeneko programan eta baita elikagaien bilketan ere. Horrez gainera, arrasatearrei errefuxiatuen gaineko informazioa eman gura diegu. Eta bestelako ekintzak ere egingo ditugu. Adibidez, orain, Aste Santuan hara goaz benetako beharrak zeintzuk diren ikusteko.

Hortaz, Aste Santuan hara zoazte; denak? Zertara?

Denak ez goaz. Etxean izandako umearen familiarengana joango dira gehienak. Nik neuk ez nuen umerik izan etxean, baina, seguru aski, Arrasaten geratu den sahararren etxera noa. Batez ere, hara joan eta benetako egoera zein den ikustera goaz.

Hortaz, ez da bakarrik urtean behin umea ekarri eta kito. Hortik aurrera harremana ere badago, ezta?

Bai. Hemengoek astero edo hamabostean behin berba egiten dute hango umeekin. Abenduan badaida bat egin zen, eta Aste Santuan bada beste bat.

Dagoeneko sei lagun bazarete taldean, baina, norbaitek interesa izanez gero badauka sartzeko aukerarik?

Taldean ez gara sei, dagoeneko zortzi gara. Hala, zortzi pertsona gabilta lanean, baina, horiez gain badago laguntzera



U.M.

“Taldean sartuta egon barik norbait laguntzeko gertu badago, gu prest gaude edozertarako”

etortzen den jendea. Taldean sartu-sartuta egon barik, lagundu egiten digute. Eta, jakina, norbait laguntzeko gertu badago, gu prest gaude edozertarako.

Orain zehaztuko dituzue beharrak, baina, gutxi gorabehera zeintzuk dira behar nagusiak?

Lehen inork ez zuen ia ezer. Orain, berriz, umea atera dutenen eta ez dutenen artean igarri egiten da aldea. Azken batean, ume bat hartzen duenak, gero ume haren familiari laguntzen dio. Eta hori igarri egiten da. Bestela, adibidez, eguzkiko plakak behar dituzte, oro har, dirua... Geure kasuan, nik neuk eramango dut hemengo dirua. Eta bestelakoak, elikagaiak-eta ondo iristen zaiz-

“Umeak hartzeko sei familia behar dira; izena emateko epea martxoaren 30ean bukatzen da”

kiela esan digute. Janaria ere behar dute, eskolako materiala...

Oraindik hasi berri zarete, baina, laster izango dugu zeuen taldearen berri...

Bai, bai.

Besterik esan nahi baduzu...

Bai. Harremanetarako gure telefonoa honakoa da: 661 33 85 87. Eta esan orain hasi garela Oporrak Bakean programarekin. Hala, Udalak 12 ume ekarriko ditu. Umeak hartzeko sei familia badaude, baina, beste sei behar dira. Hala, izena emateko epea martxoaren 30ean bukatzen da. Norbaitek umea hartu nahi badu udaletxera joan behar du (Maite Aizpirirengana), edo lehen esandako telefonora deitu.

Berriro atxilotu eta gero, aske utzi dute Enrike Letona

U.M.

Astelehenean Enrike Letona arrasatearra atxilotuta eraman eta gero, martitzenean aske utzi zuten, 12.000 euroko bermea ordaindu ostean. Lehendik duen sumario baten ondorioz eraman dute epailearen aurrera.

Enrike Letonaren kartzelarako joan-etorriak ez dauka akaberririk. Oraingo honetan, lehendik ere bazuen sumarioaren garai-ko beste sumario bat dela-eta atxilotu dute. Hala adierazi diote Letonaren senitartekoak Arrasate Irratiari. Kontatutakoaren arabera, astelehen gauean atxilotu zuten Auzitegi Nazionalako Lehenengo Epaitegiaren aginduz, amarekin etxe aldaketako lanak egiten zebilela.

MARTITZENEAN KALERA

Hala, martitzen goizean deklaratu zuten arrasatearrak Baltasar Gar-

zon epailearen aurrean. Berez, Ruiz Polanco epaileak eman zuen Letona atxilotzeko agindua, baina, gaitasun barik utzi dutenez, Garzonek egin zion galdeketa Enrike Letonari. Hala, fiskalak Enrike Letonaren kartzelaratzeko eskatu zuten, baina Garzon epaileak libre uzteko agindua eman zuten; hori bai 12.000 euroko bermea ordaintzeko baldintzarekin. Egunean bertan egin zuten ordainketa Enrike Letonaren familiakoek.

BIGARREN ALDIZ

Enrike Letona iazko maiatzaren 16an askatu zuten Auzitegi Nazionalaren aginduz, zigor osoa bete eta gero; guztira, 16 urte egin zituen kartzelan. Uztailearen 31n atxilotu zuten berriro, eta abenduaren 18ra arte kartzelan izan zuten. Oraingo asteoarekin, eta askatu zuten geroztik, birritan eraman dute epailearen aurrera Enrike Letona.



ARTXIBOA

Hamasei urte egin ditu kartzelan Enrike Letona arrasatearrak.

LABUR

Gurasoendako hitzaldiak Goieskolan, eta Alzheimerren gainekoa Monterronen

Datorren astean, gurasoendako hitzaldiak emango dituzte Erguin eta Bedoñabe ikastetxeetan. Erguinen, 6-12 urte bitarteko umeak dituzten gurasoendako hitzaldia emango dute, astelehenean, 18:00etan. Umeek eskolako lanetan duten motibazio falta aztertuko dute. Eta, egunean, hilak 25, autoestimarekin gainean berba egingo dute Bedoñaben, 18:00etan hasita. 0-6 urte bitarteko umeak dituztenendako zuzendutakoa da hitzaldi hori. Edozein joan daiteke hitzaldiok entzuterara. Bestalde, eta gaia erabat aldatuta, astelehenean, Alzheimerrekin lotutako AFAGI elkartearen eskutik hitzaldia emango dute Monterronen, 17:00etan. Era berean, eguaztenero, 16:00etatik 17:30era edozein beharretarako begirale bat izango da AFAGI Arrasaten Pasealekuko 3. zenbakian duen egoitzan.

Zenbait aldaketa egin ditu Udalak Egitamu Orokorrean; orain, jendaurrean daude

Udalak jakinarazi digu Egitamu Orokorrean zenbait aldaketa egin dituztela. Horien ondorioz, behin betiko onartutako dokumentuan ere aldaketak egin dituzte. Hala, aldatutako testua jendaurrean dago, gura duenak ikusteko, eta alegazioak izanez gero, horiek aurkezteko. Egindako aldaketen artean, adibidez, Meatzerreka auzoan mugen aldaketa txiki bat sartu dute, baita Gelma eta Gamei inguruetan ere. Eta Zerrajeran gauza bera egin dute. Hala, azken horretan, Erlojuaren eraikina izeneko esparru berri bat finkatu dute. Udalan eta Bedoñan ere egin dute aldaketarik.

ANGIOZARREN ZER ETA... IJITOEEN ARTEKO BAZKARI EDERRA!!!

Joan den egubakoitzean, ijito koadrila horrek Gema Zubizarretaren eta Bixente Elortzaren zilarrezko ezteiak ospatu zituen Ortzti jatetxean. Angiozar aldeko baserritarrek ustekabe galanta jaso zuten horrelako ijito koadrila ikusita. Argazkian ikusi daitekeen moduan, bikotea ez dago batera, ijitoek beste arau batzuk dituztelako. Bazkaria ordaintzeko orduan ahuntza eskailera ganean jarri eta kantuan ibili ei ziren guztiak. Gau partean, berriz, Arrasateko kaleetan ibili ziren gofa eta beheara. Orduan, baina, ez genuen ahuntzik ikusi.



GESALIBARKO MIKELETEEN ETXEAK BADU JABEA

Joan den eguenean atara zuten Gesalibarko Mikeleteen etxea enkantatuta. Zehazki, etxe horretako hiru etxebizitzetatik bi ziren enkantatuta jarritakoak, beste etxebizitzak baduelako jabea. Donostian egin zuten enkantatzea, eta pertsona berak eskuratu zituen bi etxebizitzak. Beheko solairukoak 49.000 euro zuen hasierako prezioa, eta enkantatzearen irabazleak 108.000 euro eskaini zituen. Goiko solairuko hasierako prezioa, berriz, 46.000 euro zen, eta 90.000 euro eman zituen jabe berriak. Horren harira, Gipuzkoako Foru Aldundikoek ez dute enkantatzearen irabazlearen izenik esan, mondragoetarra dela baino ez dakigu.



ZORIONAK, JOSEBA ETA MIREIA!!!

Oraingo zapatuan ezkonduko dira Joseba Zabala eta Mireia Muruamendiaren. Arrasate Errugbi Taldeko jokalaria da Joseba, eta Mireia taldeko duen jarraitzaile finenetako bat. Arrasateko udaletxean ezkonduko dira Joseba eta Mireia, eta Arrazolan egingo dute ezkon-bazkaria. Arrasateko Errugbi Taldeko hogeita bost lagun inguru joango dira ezkontzara (neskalagunak kontuan hartuta). Horrenbestez, oraingo zapatuan ez dadila inor Garagartzara joan, errugbikoak beste

zeregin batean ibiliko dira-eta. Eskerrak taldeak deskantsua duen, bestela, ikusteko moduko partidua izango litzateke. Garagartzako zelaiaren sasoi betean daudela erakutsi zuten Arrasateko taldeko hainbat jokalarik joan den astean, eta oraingo asteburuan Arrasateko tabernetan ere ederki konpontzen direla erakutsiko dute. Horren ganean ez dago eztabaidarik. Gehiegi luzatu barik, Arrasate Errugbi Taldeko lagunaren partetik, zorionak, bikote!!!



ARRASATE PRESS

Santanderren galdu eta gero, Arrasateko taldeko mutilek gogo handiz jokatu irabazi zuten Garagartzan.

ERRUGBIA

Igoera fase kaskarra jokatu eta gero, bosgarren postua helburu

Arrasatek Eibarren, Santanderren eta Plentziaren kontra neurtuko ditu indarrak

XABIER URZELAI

Arrasate erdibidean geratu da. Ligan maila polita erakutsi eta gero, mondragoetarren globoa aire barik geratu da igoera fasean. Pena da, daukatena eman dutenean talde sendoa direla erakutsi dutelako.

Arrasateko taldeak gehien estutu behar zuenean hanka motz geratu da, eta ezin izan du igoera fasean aurrera egin. Gaztedik kostata irabazi zion Gasteizen, baina Santanderko Unibertsitateak errepasso galanta eman zien Santanderren. Orduan, talde mondragoetarra jokalarik oso gutxiarekin joan zen Santander aldera, eta

ederki ordaindu zuten hori. Igoera fasean aukerak izateko etxean jokatu beharreko bi partiduak irabazi egin behar zituzten, baina joan den astean baino ez zuten irabazi. Gaztedik Garagartzan irabazita igoera faserako txartela lortu zuen, eta Zarautzek, neurri handi baten, Arrasateri zor dio igoera faserako txartela.

Santanderko Unibertsitateak hil edo biziko partidua jokatu zuen zapatuan Garagartzan, baina Arrasatek, nahiz eta ez izan ezer jokoan, nagusitasunez irabazi zion (29-10).

Arrasate gogotsu zelairatu zen. Igoera faseko bigarren txartela Zarautzen eta Santanderko Unibertsitatearen artean eraba-

ki behar zen, eta Arrasatek zeukan horretarako giltza. Mondragoeko taldeak denboraldian zehar lehia polita izan du Zarautzekin, baina arrasatearrek gurago zuten Santanderko taldea baino Zarautz sailkatzea. Motibazio horrekin zelairatu ziren eta ondo irabazi zuten, nahiz eta garaipen horrek Arrasateri ez, beste batzuei mesede egin.

Mailaz igotzeko aukera bertan behera utzi eta gero, Arrasatek bosgarren postua eskuratzeko izango du helburu. Horretarako, Santanderren, Plentziaren eta Eibarren taldearen kontra jokatu behar du. Oraingo astean deskantsua izango dute, eta datorren asteburuan hasiko dira.

ZALDIBARARETOFUTBOLA



EMAITZAK

Betrayer - Abokajarro	9-4
Speed Boys - Dream Team	4-3
Etixerat - Aloña Taberna	9-4
Iritz Taberna - AC Surcos	1-9
Dribling - Tomahawk	4-2
AT Celaya - Rayo Aldeano	8-6
You Know! - Goma-2	11-0
Lasagabaster - Saukelu Scream	----

SAILKAPENA

A MULTZOA		P	J
1. Betrayer	4	2	
2. Etixerat	4	2	
3. AC Surcos	4	2	
4. Iritz Taberna	2	2	
5. Speed Boys	2	2	
6. Abokajarro	0	2	
7. Aloña Taberna	0	2	
8. Dream Team	0	2	

B MULTZOA		P	J
1. You Know!	2	2	
2. Lasagabaster	2	1	
3. AT Celaya	2	1	
4. Saukelu Scream	2	1	
5. Dribling	2	1	
6. Tomahawk	2	2	
7. Rayo Aldeano	0	2	
8. Goma-2	0	2	

ORAINGO ASTEBURUAN DESKANTSUA

GOMA-2 TALDEAK GAIZKI HASI DU BIGARREN FASEA

Joan den asteburuan izan ziren emaitzei begiratu eginez gero, azpimarratzekoa da Goma-2 eta Betrayerren arteko partiduan izandako gol zaparrada. Goma-2 taldeak igoera fasean jokatuak bi partiduak galdu egin ditu, eta joan den astean hamaika gol jaso zituen. Emaitza hori ez da oso normala; batetik, Goma-2 taldeak hori baino maila hobea daukalako, eta gainera, bigarren fasean horrelako emaitza gutxi ikusten direlako. Kontua da jipoi galanta jaso zutela. Eta bigarren fasean aurrera egin gura badute, gauzak hobeto egin beharko dituzte.

Horrez gain, Dribling taldeko jokalarik batek partidu bateko zigorra bete behar du, baina horrek datorren astean izan beharko du, oraingo asteburuan ez da eta Zaldibarren partidurik izango. Hiru eguneko asteburua dugula aprobetxatuta, antolatzaileek gurago dute deskantsua eman, bestela, talde askok norgehiagokarik ez jokatzeko eskatuko lukete.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Trintxerpe Preferentea. Egubakoitzean. 16:30. Atxabalpen.
Mondra - Ordizia Ohor. Gazt. Egubakoitzean. 12:00. Atxabalpen.
Arrasate - Herrerako Sporting Ohor. Kadet. Egubakoitzean. 09:45. Donostian.
Beraun - Arrasate Big. Gazt. Egubakoitzean. 10:00. Donostian.
Oiartzun - Arrasate Infantilak. Egubakoitzean. 10:30. Oiartzunen.
Elgoibar - Mondra Neskak. Egubakoitzean. 15:30. Elgoibarren.
UDA - Mondra Preferentea. Domekan. 16:30. Aretxabaletan.
Mondra - Urki Neskak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

ESKUBALOIA

AGR Arrasate - Bizkaia Deustua Seniorrak. Egubakoitzean. 12:00. Iturripen.
SASKIBALOIA Kalagorri - Ointxe Arrasate Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Kalagorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Preferent. Mondra - Anaitasuna	1-2
Ohor. Gazt. Mondra - Martutene	0-3

SASKIBALOIA

Senior. Ointxe Arrasate - Getxo	90-87
---------------------------------	-------

ERRUGBIA

Senior. Arrasate - Santander	29-10
------------------------------	-------

ESKUBALOIA

Senior. AGR Arrasate - Legazpi	28-30
--------------------------------	-------



Iker Elortza Euskarians-ekin

Iker Elortza errugbi jokalarik mondragoetarrak 20 urtetik beherako Euskarians selekzioarekin jokatu du bihar, egubakoitzean, Irlandan. Partidua Sutton-en izango da, eta Euskariensek Irlandako selekzioaren kontra neurtuko ditu indarrak.

Euskarians selekzioa Euskal Herriko jokalariek osatzen dute, eta Arrasateko jokalaria lehenengo aldiz izango da selekzio horretan. Irlandako selekzioa Hego Afrikan jokatu duten Munduko Txapelketa dabil prestatzen.

FUTBOLA

Bihar Trintxerpe eta domekan UDA: Mondrak sei puntu ditu asteburuan jokoan

Arrasatearrek bihar jokatuko dute elurratik atzeratutako partidua, eta domekan derbia izango dute Aretxabaletako taldearen kontra

XABIER URZELAI

Arrasateko futbol taldeak asteburu garrantzitsua dauka aurrean. Hasteko, Josu Zubiaeren mutilek Trintxerperen kontra jokatuko dute bihar arratsaldean. Deskantsatzeko denbora barik, domekan derbia jokatuko dute UDAREN kontra. Urre balioa duten sei puntu izango dira jokoan.

180 minutu jokatzeke eta sei puntu eskuratzeko. Gauzak ondo eginez gero, ez da asteburu makala. Eta gauzak ondo egiteko deseatzten daude Arrasateko jokalaririk. Mondrak hamargarren postuan dagoen Trintxerperen kontra jokatuko du bihar, egubakoitza (16:30ean, Atxabalpen). Domekan, UDAREN eta Mondraren arteko derbiaz gozatu ahal izango dugu (16:30ean, Ibarren).

Trintxerpe sailkapenaren erdialdean badago ere UDAREN nabarmen egin du gora. Igor Gordobilen mutilek aspaldian ez dute partidurik galdu, eta etxean jokatzen dutenean kontrario gogorra dira. Dagoeneko bosgarren postuan dira, Mondrak baino zortzi puntu gehiagorekin.

BIHARKOA GARRANTZITSUA

Trintxerperen kontrako norgehiagoka garrantzitsua da. Hiru puntuak eskuratuz gero, Arrasateko taldeak bolada txarrari amaiera emango lioke —21 puntutik bakarra ere ez eskuratzeari bolada txarra baino zerbait gehiago da—, eta derbia konfiantza eta segurtasun handiagorekin jokatuko lukete.

Bi taldeek errekuiperatzeko denbora luzerik izango ez badute ere, derbira gogo betez joango dira bai Aretxabaletako eta baita Arrasateko jokalaririk ere. Aloña Mendiren eta Bergararen kontrako derbiak politak dira, baina ez dago UDAREN eta Mondraren arteko lehia modukorik. Lehen itzulian UDAREN balio handiko puntua eskuratu zuen Atxabalpen. Orain, Mondrari egokitzen zaio ondoko herriko futbol zelaietan urrea eskuratzeari.



Joan den astean Anaitasunak ez zuen Mondrak baino gehiago egin, eta hala ere kanpotarrak 1-2 nagusitu ziren.

FOTOKIROLA



AGR Arrasatek bihar, egubakoitza, hasiko du igoera fasea

AGR Arrasate Eskubaloi Taldea Udaberri Txapelketako finalerako sailkatu barik geratu zen joan den astean. Finala jokatzea, baina, ez zen arrasatearren helburu nagusia, oraingo asteburuan igoera fasea hasiko dute-eta. Eta hori da mondragoetarren benetakoa helburua: igoera fase txukuna egin eta posible bada mailaz igoetzea. Talde hauek izango dira Arrasateren multzoan: Bizkai aldetik Erromo, Burdin Trapaga eta Bizkaia Deustua; Arabatik Corazonistas taldea; eta Gipuzkoatik Urola eta AGR Arrasate izango dira. Lehenengo norgehiagokan Bizkaia Deustua taldearen kontra jokatuko du AGRK. Partidua bihar jokatuko dute, 12:00etan, Iturripen. Talde beteranoren kontra neurtuko dituzte indarrak, baina ondo jokatuz gero, Arrasatekoak besteak baino azkarragoak dira. /X.U.

ATLETISMOA

Arrasateko atletek Espainiako Kros Txapelketan hartuko dute esku asteburuan

Oraingo asteburuan jokatuko dituzte Espainiako Kros Txapelketak, eta Arrasateko atletek ez dute kale egingo. Ourenseko beterrano mailako lasterketak korrituko dituzte, eta han izango dira Maria Jose Gil (4.800 metroko lasterketan), Javier Mentxaka (6.400 metroko lasterketan), eta Cesar Diez (6.400 metroko lasterketan).

Horrez gain, Markel Blanco arrasatear gaztea Caceresen jokatuko duten Espainiako Kadete Mailako Kros Txapelketan izango da, eta 6.400 metroko lasterketan hartuko du esku.

MENDIA

Elurratik atzeratu eta gero, martxoaren 28an hasiko dute Gipuzkoako Bira

Besaide Mendizale Elkarteak otsailaren azken astebururako antolatzen duen Gipuzkoako Birako lehen etapa. Bota zuen elurratik baina, atzeratzea erabaki zuten, eta datorren asteburuan egingo dute etapa hori. Izena emateko egunak datorren astelehena, martxoaren 28a, eta eguaztena dira, 19:30etik 20:30era Besaideren egoitzan.

Lehenengo etapa hori inguruotan egingo dute: Gatzagatik Jarritzen dora, handik Kurtzetara eta Untzillatik eta Suñatik pasa eta gero Gesalibartik Arrasatera bueltatuko dira.

SASKIBALOA

Ointxe Arrasate hamaikagarren garaipenaren bila joango da asteburuan Errioxa aldera

Arrasateko Saskibaloi Taldeak Kalagorri jokatuko du oraingo asteburuan. Badirudi Mondragoeko taldeak ez daukala bere neurriko kontrariorik, baina oraingo asteburuko partidua ez da erraz izango. Errioxarren kantxan irabaztea ez da batera erraza, besteak beste, publikoak epaileengan eragin handia izaten duelako. Ointxe gutxitan itzuli da gustura Errioxa aldetik. Norgiagiako zapatuan jokatuko dute, 18:00etan, Europa kiroldegian.

ANTZERKIA / Kultur Errotak eta AEDk antzezlan antolatuko dute

Datorren egubakoitzean, igogailu baten jazotako pasarteak antzeztuko dituzte

IKER BARANDIARAN

Martxoaren 26an, egubakoitzean, Deustuko Gilkitxaro antzerki taldeak *Elevator* lana eskainiko du Jai Zale tabernan, 23:00etan. Kultur Errotak eta AEDk antolatu dute ikuskizun hori. Gilkitxaro taldeak kontatuko du hiru pertsonaiak igogailu baten biziko dutena.


Kultur Errotak eta AEDk eutsi diote kultura programazioari, eta martxoaren 26an Gilkitxaro antzerki taldea ekarriko dute Arrasatera. Deustuko antzerki taldeak *Elevator* lana antzeztuko du Jai Zale tabernan, 23:00etan.

Elevator antzeztanaren gidoia aspaldikoa da. 2001n, Gilkitxaro taldeko Galder Perezek Kafe Bilbao lehiaketako saria jaso zuen lan horrekin. Gerora, 2003an, taldeak antzeztan hori egitea erabaki zuen, eta iaizko martxoan Deustuko gazte lokalean, ohi duten moduan, estreinatu zuten.

Estreinatu zutenetik orain arte ehunka aldiz antzeztu dute *Elevator*, batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian, eta baita Araban eta Nafarroan ere. Laster Zuberoan antzezteko asmoa dute.

Arrasaten egingo duen antzeztan Gilkitxarok orain arte egin duen txikiena da. Hiru aktorek lan egiten dute: Galder Perezek, Ane Zabalak eta Asier Orgazek, hain zuzen ere.

Elevator igogailu publiko baten gertatzen den istorioa da. Lan horren egilea Begoñako igogailu publikoan oinarritu da. Hiru lagun igogailuan igoko dira: igogailuzaina, emakume bat eta gizon bat. Igogailua goranzko bidean gelditu egingo da, eta ezin dute gora ezta behera egin. Igogailuzainak beste leku batzuetara eraman gurako ditu, eta haren bitartez hirurek zelanbait bidaia-tu egingo dute.



Bi deustuarrek eta bergarar batek esku hartuko dute *Elevator* antzeztan.

gailuzaina, emakume bat eta gizon bat. Igogailua goranzko bidean gelditu egingo da, eta ezin dute gora ezta behera egin. Igogailuzainak beste leku batzuetara eraman gurako ditu, eta haren bitartez hirurek zelanbait bidaia-tu egingo dute.

HAUSNARKETA EGITEKO KOMEDIA
Antzeztan horrek 45 minutu irauten du, eta Gilkitxaro taldeko kideen esanetan, komedia sako-

na da. "Ikusleei galdetuta konturatu gara lan horrek irakurketa asko dituela, edo oro har jendeak hausnarketa txikia egiten duela", esan zigun Galder Perez, lanaren egile eta aktoreak. Galderrek, haren ikuspuntutik, honako azalpena eman zigun: "Garrantzitsua da nork bere bizitzan geldiune bat egitea, eta noizbait norbera distantziatik ikusten ahalegintzea". Bestalde, *Elevator* da Gilkitxaroren lehenengo lana ikusleek esze-

natoki gainean esku hartzen ez dutena. Orain arteko beste lan guztietan ikusleei laguntzeko gonbitak egin dizkiote.

Deustuko talde beterano horren bosgarren lana da *Elevator*. 1993an sortu zuten taldea Deustuko gazte lokalean. Ikastolan antzerkia egiten zuten lagun taldea ziren, eta horretan jarraitzea erabaki zuten. Orduetik hona hainbat aldaketa izan dituzten arren, Gilkitxarok ibilbide luzea

'Elevator' Deustuko Gilkitxaro antzerki talde beteranoaren bosgarren antzeztana da

Antzeztan horrek norberaren bizitza distantziatik ikusteko geldiunea egitea aholkatzen du

Gilkitxaro taldea hasi da seigarren antzeztana izango dena prestatzen: 'Aharrausika'

egin du. *Elevator* lanaren aurretik, honako beste hauek egin zituzten: *Beste munduko* (1993), *Infernuko atarian* (1996), *Aquí no pasa nada* (1999) eta *Trokaolatarrak* (2001), hain zuzen ere. Aspaldian, seigarren lana izango dena, *Aharrausika* prestatzen dabilta, eta aurtengo azaroan estreinatzeko asmoa dute.

Julia Roberts-ek ikasle konformistak aldatzeko ahaleginak egingo ditu

I.B.
Bihar, egubakoitza, zinekluba egongo da. Lars Von Trier zuzendariaren *Dogville* drama arrakastatsua emango dute. Zapatuan, domekan eta astelehenean, berriz, *La sonrisa de Mona Lisa*.

Aurreko astean zineklubik egon ez zen arren, bihar, egubakoitza, emango dute. *Dogville* filma emanango dute, 20:30ean. Lars Von Trier daniarkarrak zuzendu du. Oso zuzendari ezaguna da, *dogma* izeneko korrontearen sortzaileetako bat izan zelako. Hainbat film egin ditu, gehienak dramak: *Europa*; *Rompiendo las olas*; *Los idiotas*; *Bailar en la oscuridad*... *Dogville* ez da salbuespena. Nicole Kidman gangster batzuen-

gandik ihesi dabil, eta *Dogville* herrira helduko da. Hango herri-tarrek ezkututzen lagunduko diote, baina egoera berezi horretaz baliatuta, Kidmani gehiegizko mesedeak eskatuko dizkiote. 2003an, *Dogville*-k Europako Film Onenaren saria jaso zuen.


UMEENDAKO, GABONEN GAINEKO FILMA
Domekan, hilaren 21ean, umeendako film bat emango dute Amaia Udál Antzokian, 17:00etan. *Los reyes magos* filma Espainiako eta Frantziako Estatuko zinema-ekoizleen elkarlana izan da. Animazioko filma da eta 80 minutu irauten du.

Melchor, Gaspar eta Baltasar erregeek Herodesen eta Belialen mehatxuei aurre egingo diete, eta abentura mordoa bizi izango dituzte, erregeen erregeak bote-

rea berreskura dezan. Animazioko zuzendaria Manuel G. Galiana izan da, eta horrek Hollywooden lan egin izan du (*Todos los perros van al cielo*, *Anastasia*...). Espainiako Estatuan egin den animazio film garestiena da; 7,2 milioi euro kostatu da.

Zapatuan, domekan eta astelehenean, *La Sonrisa de Mona Lisa* filma emango dute. 117 minutu irauten du. Mike Newell estatubatuarra zuzendu du. Zuzendari horrek ibilbide luzea du: *The good father*, *Cuatro bodas y un funeral*, *Donnie Brasco*, eta abar.

Julia Roberts da drama horren protagonista (*Erin Brockovich*, *Notting Hill*...). 1953an, Roberts Ingalaterra Berriko unibertsitatera joango da eskolak ematera, eta ikasle konformisten jarrera aldatu gurako du.



La Sonrisa de Mona Lisa filma, irakaskuntzako harremanen gainean.

BEHEKODENDATIK

Marcos Lucero

MAYTE LORADENDA

XABIER URZELAI

Plazan postue eukittetik dendie ipinttera pasau die Marcos eta Mayte. Marcos Argentinan jaixo bazan be, 8 urtekin etorri zan Euskal Herrira, Lasartera. 18 urtekin loradendie zabaldu euen, eta oin, Mondraguen ipiñi dau negoziue, Maytekin batera. Hala eta be, plazan be egoten die eguzten eta eguakotxetan.

Ze falta jako Mondragueri?

Bizittasun apur bat.

Eta, ze dauko ona?

Ez dot euki denporarik inguruek ezauketako, baiñe jentiek in nau gustora.

Ze falta jatzu zeuri?

Ezer be ez. Lana dauket, emaztie, alabie... Ez dot biher besterik.

Eta, ze dauketzu sobran?

Imajinaziñue.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

Mentes peligrosas / Un saco de huesos / Hip-hop musikie gustetan jat.

Momentu honetan nora juen-go zitzake gustora?

Thailandiara. Sekulako lora mordue dau han, eta lora-diseiñuen oso aurreratute dabitz.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Plantxie.

Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeñekin?

Halle Berry-kin.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Neure labana txikiñe.

Denbora librien ze egitten dozu?

Patiñetien ibili, snowa egin, eta alabiekin egon.

Kapritxo bat.

BMW M3 automobile erostie. Sekulakue izengo litzake.

Asteburue pasetako leku apropos bat.

Baserri turismue.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESEN?

Herrixen loran gaiñeko erakusketa haundi bat egin biher dauela.



“Lora klase asko ekarten dittugu kanpotik, jentiek geruan eta gehixau eskaketan dittu-eta”

Udaberrixe gaiñien dau, lorak eskertuko daue.

Bai, eta asko gaiñera.

Lorak saltziez gain, dekoraziño lanak be egitten dittuzue.

Bai. Holakuek egitteko imajinaziño haundixe dauket, eta asesore lanak be egitten dittugu; lekue eta koloriek kontuen eukitte lorontzi baten ze lora jarri...

Dekoretako, lora naturalak ala artifizialak?

Naturalak, duda barik. Neu lora naturalen aldekie naz.

Nundik ekarten dozue lorak?

Leku askotatik. Lehen, jentiek hiru lora klase bakarrik eskaketan euen, baiñe oin, klase askotakuek eskaketan daue. Neuri, gaiñera,

“Lorak saltziez gain, dekoraziño lanak be egitten dittugu; imajinaziño haundixe dauket”

lora berezixek asko gustetan jat, eta munduko edozein lekutako lorak ekarten dittugu: Afrika, Asia, Hego Amerika...

Balkoie loraz beteta dauken horreittakue zara?

Ez. Neuri ez jat kantidadi gustetan; ondo ipiñitte egotie da inportantiena.

Dendan dauketzuen lora bitxixena?

Diplociclos lora, adibidez, Thailandiatik ekarritakue da.

Nox eukitten dozue lan haundixen?

Eguakotxetan. Dendan eta plazan egoten gare, eta eguakotxetan, gaiñera, jente gehixau ibiltten da kalien.

NIREBIDAIAHURA/ Juan Luis Lasa

Brasilera / 2004ko Aratusteetan

Juan Luisek txikitatik izan du Brasilgo Aratusteak hurbiletik bizi izateko ametsa. Aurten, amets hori betetzeko aukera izan du. Astebete egin zuen arratsatear horrek Brasilen, eta Mondragoera itzuli zenean Arrasate Irratian izan genuen bere bidaiaren berri. Brasilen leku askotan ospatzen dituzte Aratusteak; izen handiena Rio de Janeiroko Aratusteek badute ere, Juan Luis Salvador de Bahian izan zen: “Aratusteetan Brasilera joatekotan leku horretara joateko gomendatuko nuke. Oso Aratuste ikusgarriak dira, baina era berean Aratuste herrikoiak dira, eta desfilean parte hartzeko aukera dago. Rio de Janeiron, berriz, hori askoz ere zailagoa da”.



“Desfilean parte hartu genuen, eta hori izan zen politena”

Brasilgo Aratusteek duten izenaren gainean galdetuta, nahiko mitifikatuta daudela gaineratu du Juan Luisek: “Horrek ez du esan gura sekulako giroa ez dagoenik. Goizean goiz hasten ziren prestakuntza lanak egiten, eta arratsaldeko zortziak aldera hasten ziren desfileak. Arratsaldeko zortzietan hasi eta goizaldeko zazpiak arte gura beste dantza egiteko aukera zegoen”.

Juan Luisek desfileetako blokoetan parte hartu ahal izan zuen: “Blokak hemen go konpartsa modukoak dira. Desfilea bloko askok osatzen zuten, eta bloko bakoitzak kamioi bat zeukan. Kamioi horietan musika taldeak, mozorrotuetako emakumeak, edariak... Eta, kamioien atzetik jendea dantzan. Hori izan zen gauza azpimarragarrietako bat, bloko horietan parte hartzeko aukera izan genuela, hain zuzen. Hori Rio de Janeiron ezinezkoa da”.

Hango herritarrekin izan zuten harremana ere azpimarratu izan gura du Juan Luisek: “Hasieran polizia asko ikusi genuen, eta beldurtu ere egin ginen. Gero, baina, jaietan murgildu eta ederto ibili ginen. Hainbat koadrilerekin izan ginen han, eta jaietan murgiltzeko erraztasun guztiak jarri zizkiguten. Oso ondo ibili ginen, eta sekulako esperientzia izan zen”.

XABIER URZELAI



Brasilgo Aratusteak mundu osoan dira ezagunak.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
 - Aglomeratuak
 - Kontratxapatuak
 - Tablexa
 - Ateak
 - Egurrezko leihoak
 - Oin-inguruak
 - Zangoak
 - Aroztegi osagarriak
- Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711752

E, TXO!

GUREGAIK/ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Etzi, zapatua, Motorsex eta Jauko Barik taldeen kontzertua

IKER BARANDIARAN

Bilboko Ekintza Zuzena aldizkariak kontzertu itzela antolatu du Arrasateko gaztetxean. **Zapatuan, Donostiako Jauko Barik neska taldeak eta Motorsex bilbotarrek kantu berriak aurkeztuko dituzte.**

Bilboko *Ekintza Zuzena* aldizkariak ia urtero antolatzen du kontzerturen bat Arrasateko gaztetxean. Hala, etzi, zapatua, Motorsex eta Jauko Barik taldeek joko dute, 22:30ean.

Jauko Barik Donostiako neska taldea da. Enarak, Haizeak eta Itsasok osatzen dute, eta dagoneko bi disko grabatu dituzte. Azkena *Bzzb eta goxatu!!!* da, eta euren kabuz kaleratu dute.

Motorsex, berriz, Bilboko taldea da. MCD taldean ibilitako hiru lagunek eta beste batek osatzen dute: Joaquinek, Bernarrek, Koldok eta Nikok. Arrasaten egingo duten kontzertua grabatu egingo dute, eta gero diskoa kaleratu.



PABLO CABEZA

Motorsex taldeak zeresan handia emango du, taldekideak beteranoak dira-eta.

NIKO/MOTORSEX TALDEKO BAXU JOTZAILEA

“Guztiz zahartu arte zirikatuko dugu”

I.B.

Motorsex taldea lau lagunek osatzen dute. Horietako hiru MCD taldean ibili ziren. Maiatzean Motorsex taldea sortu, eta gogor dabilta. Bi single grabatu eta Interneten ipini dituzte eskuragarri.

Noiz eta zergatik sortu zenuten Motorsex taldea?

2003ko maiatzean MCD utzi nuen, taldean 25 urte egin ondoren. Taldetik haserre joan nintzen oso jarrera konformista genduelako eta managerrak iruzur egin zigulako. MCD taldean ibilitako Joaquinek eta biok bat egin

genuen, baita MCDren lehenengo diskoan (*Bilboko gaztetxean*) bateria jo zuen Bernarrek ere. Hirurok MCDko taldekide orijinalak gara. Koldo abeslaria MCDren hastapenetan ume moko bat zen, baina entseguak ikustera joaten zen.

Bi single grabatu dituzue eta Interneten eskuragarri daudete...

Bai, gure helburua da musikaren banaketa beste modu baten egitea, ikusleekin harreman zuzenagoa izatea... MCDren *Imbecil.com* diskoarekin saiakera egin genuen, eta emaitza ona iruditu zitzaigun. Orain, ez dugu diskoetxeekin lan egingo eta ez ditugu abestiak erregistratuko SGAEn

(autoreen elkarte), bitartekari barik lan egin gura dugu. Eta singlearen kontzeptua berreskuratuko dugu. Betegarririk sartu barik, merezi duten bi kantu grabatu eta horiekin aurrera. Guk taldearekin jarraitzeko ordaina zuzenekoetan jaso gura dugu.

Behin irakurri nuen Motorhead eta Sex Pistolsen arteko nahasketa zaretela...

Taldeari izena ematen dion hitz jokoa da. Bi talde horiek asko eragin digute, baita Stooges eta MC5 taldeek ere. Sexu hitzak beti izan du tabu kutsua, eta izen motz eta deigarria da. Hala ere, oraindik gure soinua zehazteko dago.

Arrasateko kontzertua grabatu gura duzue...

Bai. Aspaldian Carlos Creator soinu teknikariarekin lanean gabiltza, eta haren ideia da. Zerbait kontzertu grabatu gura dugu, gero disko bat ateratzeko, eta bat Arrasatekoa izango da.

Urte mordera darazue musika egiten. Ez zarete asperitzen?

Astean pilotzen dugun adrenalina bota beharra daukagu, eta oraindik zeharo zahartu arte zirikatuko gogo handia dugu.


Athletic eta futbola ezinbestekoak dira zuentzat?

Ez, horrenbeste. Futbola gainbeheran dago, baina *giputxien* aurka apustuak egiteko taldekide guztiak Athleticekoak gara. 11 espainiar dituen talde bakarra.

HERRI ESKOLAK IKASLE ABERTZALEEN ESKUTIK
Eguenean, hilaren 25ean, Ikasle Abertzaleak taldeak Herri Eskolak egingo ditu Arrasaten. 10:00etan, hainbat berbaldi egingo dituzte Monterronen, AEDko txokoan eta gaztetxean, fisikaren, Garaia proiektuaren eta beste kontu batzuen gainean. 13:00etan, kale agerraldia egingo dute, eta gero, herri-bazkaria Herriko Plazan. Eguraldi txarra egiten badu, Uarkapeko arkupeetan. Txartelak salgai ipiniko dituzte. Arratsaldean, hainbat tailer egingo dituzte kalean: capoeira, grafitiak, sexu tailerra, eskulanak, dantza erakustaldia, eta abar. Iluntzean, ekitaldi politikoa eta kontzertua izango dira gaztetxean.


‘ESKUAK ELKARRI’-RAKO HORMA-IRUDIAK
Hainbat elkartek egin gura duten *Eskuak elkarri* ikuskizunerako horma-irudi lehiaketa antolatu dute. Arrasaten bizi edo erroldatutako edozeinek esku hartu ahal izango du. Horma-irudien neurriak 50x70 zentimetro izango dira, kartelak nahitaez bertikala izan beharko du, eta euskari informatikoan ere aurkeztu ahal izango da DIN A3 tamainako paperean. Derrigorrez honako testua izan beharko du: *Eskuak elkarri antzezlan*. Irabazleak 360 euroko saria jasoko du. Horma-irudiak apirilaren 15a baino lehen bidali beharko dira Txatxilipurdi elkartera.

GAZTETXETIK SAGARDOTEGIRA IRTEERA
Bihar, egubakoitza, Astigarragara joango dira, 12:00etan. Interesatuek gaztetxera jo beharko dute lehenbailehen.


**Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak**
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Mobiliario
ARENZA
- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA


Gambrinus
garagardotegia
• Menua:
bazkariak eta afariak
• Karta
• Errazioak
• Pintxoak eta kazuelatxoak
Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32



ARRASATE
Jose Urresti
Martxoaren 21ean,
urtebetetzea. Zorionak!
Errastiko jatetxeak.



ARAMAIO
Alaitz Gabilondo
Martxoaren 19an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
lehengusu guztiak.



ARRASATE
Iñaki Misol
Martxoaren 17an, 26
urte. Zorionak! Blanca,
gurasoak eta anaia.



ARAMAIO
Cristina Garcia
Martxoaren 18an,
urtebetetzea. Zorionak!
Lagunak eta familia.



ARRASATE
Asier Egidazu
Martxoaren 22an, 27 urte.
Zorionak, Egi! TMT.



ARRASATE
Haritz Gantxegi
Martxoaren 24an, 26 urte.
Zorionak, Gantxegi! TMT.



ARRASATE
Elena Herrarte
Martxoaren 19an, urtebe-
tetzea. Zorionak, Helen!
TMT.



ARRASATE
Herminia Lagunilla
Martxoaren 18an,
urtebetetzea. Zorionak!
Txomin, Oxel, Izaro eta Aiz...



ARRASATE
Eufenia Martin
Martxoaren 20an,
urtebetetzea. Zorionak!
Etxekoan partetik.



ARRASATE
Ania Garcia
Martxoaren 24an, 6 urte.
Zorionak! Maite
zaitugunok.



ARRASATE
Danel Arrizabalaga
Martxoaren 20an, 12
urte. Zorionak!
Familiakoan partetik.



ARRASATE
Garikoitz Heriz
Martxoaren 21ean, 25
urte. Zorionak! Etxekoan
partetik.



ARRASATE
Xabi Arrizabalaga
Martxoaren 22an, 10
urte. Zorionak! Etxekoak
eta lagunak.



ARRASATE
Oihane Urzelai
Martxoaren 18an, 13
urte. Zorionak!
Ikaskideen partetik.



ARRASATE
Alaitz Martinez
Martxoaren 19an, 10
urte. Zorionak,
Familiakoan partetik.



ARRASATE
Dionisio Agirre
Martxoaren 15ean, 71
urte. Zorionak! Joxeren
partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



Non dago argazkian ikusten duzuen armarria?
Arrastoa: galtzada-harria dago kale hartan.

ARTXIBOA

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileron artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

SOS arroza
Kilo bat

1,06 € 176 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AMAIA BALTZATEGIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Amaia!
Galderen erantzun zuzena:
Pichones taldea.

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko futbolaren gainekoa (1922-1941)

'PEQUEÑA HISTORIA DEL...'/ J. LETONA

Futbolaren historiarekin jarraituz, Arrasaten urte batzuetan (1916tik 1922ra) ez zen futbol zelairik izan.

Hala ere, futbolarekiko zaletasun handia zegoen, eta Udal Pilotalekuan jokatzeko zuten taldeak sortu ziren herrian. Horien artean, nabarmentzekoak dira: Los Once Leones eta Hijos de la Noche, nagusien mailan. Eta Los Incas, Beti Lagunak, Club Viteri eta Fortuna, gazte mailan.

MAALAKO ZELAIA

Joan den asteko kontakizunarekin jarraituz, eta 1916ko grebaren eraginez, sei urtean ez zen talderik izan. 1922an elkartu ziren berriro. Zelaia estreinatu zuten: Maalakoa. 1922ko ekainaren 24an inauguratu zuten, hain zuzen ere; Kataide baserriko eta Dagoberto Resustaren lurretan zegoen zelai hura. Taldeko aurreneko presidentea Juan Resusta Olañeta izan zen; eta entrenatzailea, Juan Madinabeitia Moxolo.

1923-24 denboraldian hasi zuten taldeak ibilbide berria, Serie B izeneko mailan estreinatuz. 1924-25 denboraldian eta hurrengoan maila horretan jokatzeko segitu zuten. Honako jokalariek zituen tal-



1942-43an Gipuzkoako Kopa irabazi zuen taldea; talde berak lehenago Liga Txapelketa irabazi zuen.

ARTXIBOA

deak: Juan Madinabeitia atean; Jose Azkoaga eta Felix Herrera defentsan; Jose Mondragon, Roman Zabarte eta Vicente Arregi erdian eta Alejandro Mendizabal, Luis Ubago, Modesto Ojangueren, Santos Zarraoa eta Luis Zarraoa aurrean. Bestalde, herriko

1935-36an, lehen erregionaleko Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen Mondragoek

arbitroen artean, Jose Ramon Mendizabal Arrasate-ren gaineko iritzi ona zuen jendeak.

Aipagarria da, era berean, 1924-25 denboraldian beste talde bat sortu zela herrian. Mondragon FC izenarekin aurkeztu zuten erregional mailan. Eta bestelako

gertakari garrantzitsuen artean, aipatzekoa da 1928-29 denboraldia une gogoangarria izan zela, futboleko liga nazionala hasi zen-eta. Club Deportivo Mondragonek bigarren maila arruntean jokatu zuen. Txapelketa hura bi barrutitan jokatu zen: Donostian eta Bergaran. Azken horretan honako taldeek jokatu zuten: Vergara FC, Deva FC, Elgoibar FC, Bergarako Aurrera, Irungo Deportivo Roca, Donostiako Avion FC, Villafranca, Beasain, Deportivo de Mondragon, Irungo Hispania, Tolosa eta Donostiako Amaikak Bat taldeek.

AZKEN DENBORALDIK

Geroago, 1932-33ko denboraldian nabarmentzekoa izan zen taldeen artean zegoen lehia; gauza bera gertatzen zen zaleen artean ere. 1935-36an, lehen erregionalean Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten. Gero, gerra zela-eta, 1939-40ra arte ez zuten txapelketarik jokatu. Urte hartan, Anaitasunak, Bergarak, Donostiako Amaikak Bat-ek, Alavesek, Elgoibarrek, Eibarrek eta Arrasateko jokatu zuten maila berean. Arrasatekoek irabazi zuten txapelketa. Dena dela, zoritxarrez, hurrengo denboraldian lehen erregionaleko maila utzi egin zuten mondragoetarrek.


Txirritola

ARAMAIO / Eguena / 2004ko martxoaren 18a / 101. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02


M14 / HAUTESKUNDEAK

PP izan da galtzaile nagusia aurtengo hauteskundeetan; EAJ eta EA, gora



Ezuste barikoa izan zen hauteskunde eguna Aramaion.

UDAL HAUTESKUNDEAK



2004ko errolda: 1.227 / Abstentzioa: 274 (%22,33)

2004 2000

U.M.

Inguruko herrietan moduan, Aramaion ere gora egin dute EAJ eta EA alderdiek, orain dela lau urteko datuekin konparatuta. Horrekin batera, aipatu beharra dago Bergarako ekimenaren aldeko boto kopuru polita lortu zutela, baita Aralarrek ere.

Ezuste barik joan zen hauteskunde eguna Aramaion. Betiko moduan, San Martin Eskolako bi mahaletan eman zuten botoa herritarrek. Hain zuzen ere, %22,33ko abstentzioa izan zen Aramaion (1.227 lagunetako erroldatik, 274 abstenitu ziren).

Mahaiak 20:00etan itxi zituzten, eta botoen kontaketa arazo barik egin zuten. Udaleko Idazkariak kontaktatu digunez, 23:00etarako, Kongresurako botoen zenbaketa bukatuta zuten. Jakina, Senaturako botoen kontaktak

luzeago jo zuen, bozkatzeko modua desberdina izan zen-eta.

EMAITZAK BEGIRATUTA

Emaitzei begiratuta, berriz, Aramaion gainerako herrietan izan zen joera berri nagusitu zen: alderdi nazionalistek gora egin zuten, baita ezker aldekoek ere, eta PP izan zen galtzaile bakarra.

Datuen artean, aipatzekoak dira, adibidez, PSE-EEK igoera nabarmena izan zuela, eta Ezker Batuak bikoiztu egin zuela boto kopurua. Ezker abertzaleari dago-kionez, kontuan hartuta legez

Inguruko herrietan izan den joera bera izan da Aramaion ere: PPK beherakada nabarmena izan du

kanpoko alderdia dela, emaitza esanguratsuen lortu zituen Bergarako ekimenaren aldeko taldeak: ia %17. Hirugarren indarra izango litzateke. Bestalde, aipagarria da Aralar aurreneko aldiz aurkeztu dela eta ez duela batera emaitza txarrik lortu: botoen %9,7. Bukatzeko, PPK nabarmen egin zuen behera: botoen %5,5etik, botoen %2ra.

SALAKETA ETA GAITZESPENA

Aipatutako emaitzetan igartzen da Madrilen izandako atentatuak eta horrekin lotuta Madrilgo gober-

Aipatzekoa da ezker aldeko alderdiek bototan igoera nabarmena izan dutela

nuak egindako gestioak eragina izan dutela hauteskundeetan. Horren harira, joan den astelehenean, hilak 15, premia osoko bilkura egin zuen udalbatzarrek. Zinegotzi guztien artean idatzi bat adostu zuten. Horren arabera, Aramaio Udalak Madrilgo atentatua gaitzetsi egiten du eta elkartasuna adierazten die sufrizten dabilzane. Era berean, Madrilgo gobernutik izandako informazio falta salatzen dute. Eta Iruñean gertatutako heriotza bortitza ere gaitzetsi zuten. Ekintza negargarria izan zela adierazi zuten.

Asteleheneko batzarrean Madrilgo atentatua eta Iruñeko heriotza gaitzetsi zituzten

LABUR

Datorren astean aurrekontua aztertuko dute

Datorren egunean, hilak 25 osoko bilkura izango da udal letxean. Gai dezente dituzte lantzeko; tartean, 2004ko aurrekontuak onartzeko proposamena aztertu beharko dute. Horren harira, oraingo astean ibili dira aurrekontuaren gaineko azkeneko xehetasunak zehazten. Horrez gainera, Tolosako Manu Azkarate preso politikoa dela eta bi mozio aztertu beharko dituzte zinegotziek; bata hAMALau taldeak aurkeztutakoa eta bestea udalbatzar berak aurkeztutakoa. Horrekin batera, hAMALau taldeak Udalak ezarritako prezio eta tasa igoerarekin lotuta alegazio bat aurkeztuko du, besteak beste. Batzarrak 18:00etan hasiko da.

Aramaioko Udalak emandako pare bat ohar

Herritarrei jakinarazteko pare bat ohar helarazi dizkigu oraingo astean Aramaio Udalak Batetik, eta udaletxeko lanak direla-eta, jakinarazten dituen Correosko postontzia leku aldatu dutela. Orain, lehenengo hiltegiaren atean ipiniko dute. Bestetik, zaborrak sailkatzea galdararik jaso ez duen oraindik ere badu lortzeko aukera. Udaletxera joatea berriz terik ez dauka, eta ez du bertan Udalak emandako postontzi eraman behar.

Gesalibar auzoan erre bat moztuta egongo da

Gaur, martxoak 18, eta astelehenean, martxoak 22, Aramaio Udalak Gesalibar auzoan erre bat moztuta egongo da. Kontua da batzuk egiten dabilzala. San Juan de Dios ospitaleko errekin batean. Hain zuzen ere erreia itxita dagoen bitartean txandaka bideratuko dute autoen joan-etorria.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute.

Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara:

629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAKOEN PARTIDUAK

Madrilen gertatutako atentatua zela-eta, joan den asteburuan bertan behera utzi zituzten jokatu beharreko partiduak. Eta oraingo aste bukaera ezohikoa denez, ez dute partidurik jokatu.

HIRU EGUNEZ, COPPOLA

Gaur, eguena, hasi eta zapatara arte, Francis Ford Coppola zuzendariaren *El Padrino* trilogia emango dute kultura etxean. 22:30ean hasiko dira emanaldiak.

DOMEKAKO ZINEMA

Domekan, Disneyren marrazki bizidunak emango dituzte: *El Rey León III*.

BERTSOZALE GAZTEAREN GAUA

Etzi, zapatua, Arabako Bertsozale Gaztearen Gaura ospatuko dute Gasteizko Aldabe gizarte etxean. 22:00etan hasiko da, bertso trama batekin. Besteak beste, Manex Agirrek eta Andere Arriolabengoak parte hartuko dute. Gero, 23:00etan bertso tribial erraldoia izango da eta 24:00etan, bertso zahar eta kantuen ekitaldia.

Aramaioko Gazte Asanbladak antolatuko ditu jaiak

UBANE MADERA

Aramaioko 50 bat gaztek elkartu eta talde bat eratu dute: Aramaioko Gazte Asanblada. Hasteko, herriko jaiak antolatzeko ardura hartu dute. Baina bestelako ekimenak ere egingo dituzte. Azken batean, helburua da koadrilen arteko harremana sendotzea.

Orain arte Jai batzordeak egin duen lana hemendik aurrera Aramaioko Gazte Asanbladak (AGAk) egingo du. Hala jakinarazi digu orain dela gutxi sortu den talde horretako kide batek. Esandakoaren arabera, oraingo astean bertan aurkeztu behar diote Udalari jaietako kontzertuetarako zeintzuk diren gazteen proposamenak. Izan ere, lehenbailehen egin beharra dute hori, ekarri nahi dituzten taldeak lortu ahal izateko.

BESTELAKO EKIMENAK

Era berean, jaietako gainerako ekimenak ere Aramaioko Gazte Asanbladak antolatuko ditu: txarangak, umeendako jolasak... Oraingo astean Udalarekin izan-


dako batzarrean zehaztu behar zuten hori guztia. Baita bestelakoak ere; adibidez, AGAk lokala eskatu behar zion Aramaioko Udalari batzarrak-eta egiteko, orain arte kultura etxean eta Bañera parkean ibili dira-eta.

HELBURUAK

Aramaioko gazte dezentek egin du bat elkarte berriarekin: 14 urtetik aurrerako 50 bat gaztek. Dagoeneko badute herriko jaiak antolatzeko lana, baina bestelako helburuak ere baditu AGAk. Hain zuzen ere, herriko koadrilen arteko harremanak sendotu gura dituzte, eta horretarako ekimen bereziak antolatuko dituzte: mendira irteerak, ikastaroak...

GAZTE EGUNA

Bestalde, gazte jendearen kontuekin segituz, herriko zenbait musikariek Gazte Eguna antolatu dute aurreneko aldiz. Oro har, herriko eta inguruko gazteei zuzendutako eguna izatea nahi dute. Aurreratu digutenez, bertso-saioa, trikitalariak, eta inguruko zenbait taldeekin kontzertuak hitzartuta dituzte. Eguna ere zehaztu dute: apirilaren 16a.



Manex Agirre eta Iker Agirre barikuan Anboton egindako saioan.

Andere Arriolabengoa aurrera bertsolari txapelketan

UBANE MADERA

Joan den zapatuko kanporaketan, Andere Arriolabengoa bigarren geratu zen. Horrek esan nahi du finalurrekora pasatuko dela. Hain zuzen ere, finalerdi hori Aramaion jokatu dute, martxoaren 27an. Bestalde, Iker Agirre seigarrena izan zen.

Bederatzi bertsolariaren arteko lehia izan zen zapatukoa. Eta Andere Arriolabengoa irabazleak baino puntu bat gutxiago

eskuratu zuen: 119,5. Iker Agirre, berriz, seigarren izan zen 101,5 punturekin. Gauzak horrela, Andere Arriolabengoa bi finalerdietako batean parte hartuko du: martxoaren 27an, Aramaion. Hurrengo finalerdia apirilaren 3an izango da, Laudion. Han, Manex Agirrek parte hartuko du.

BARIKUKO EKITALDIA


Bestalde, joan den barikuan bertsolari gazteek saioa egin zuten Anboto tabernan. Tartean, Manex Agirrek eta Iker Agirrek parte hartu zuten.

BOTEPRONTOAN/ Joxe Oruna · Lorezaina

“Jendeak kasu larregi egiten die landareei, eta landareak bakean utzi behar dira, neurritz zaindu”

Oraingo astean Zuhaitz Eguena ospatuko dute Aramaion. Hori horrela, geuk ere natura kontuak izango ditugu berba-gai elkarrizketaren tartean. Aramaioko lorezain Joxe Orunarekin izan gara horretarako:

Noiztik lorezain? Zer dela eta? 1989an hasi nintzen. Basoan lanean nenbilen eta halako batean lagun bat etorri zen. Zera esan zidan: “Joxe, ¿quieres trabajar?”. Eta neuk: “Ba bai, zertan?”. Eta hark: “Es de jardinero”. Eta neuk zera ulertu nion: “Dejar dinero”; hortaz, galdetu nion: “Zer da hori? Negozio bat-edo?...”. (Barre). Hala hasi nintzen lorezain, Arrasaten. Santa Agedan ere ibili naiz ospitaleetan lorategiak egiten eta kooperatiban (Gargartzan, San Andresen...). Zazpi urtean ibili nintzen. Gero hemen hasi nintzen. Arrasaten sei urte egin nituenerako aspertuta nengoen, beti egin behar zen lan bera; ez zegoen aldatzeko aukerarik. Hala, Aramaiokoei esan nien noizbait lana izanez gero, esateko. Eta langile bat joan zitzaizenean, deitu egin zidaten. Zazpi urte daramatzat. **Zer zaintzen duzu Aramaion?** Lorategiak. Kaleko lorategiak eta auzo guztietako kanposan-



“Globalizazioaren eta negozioaren eraginez, kanpoko landare asko sartu ditugu hemen”

tuak. Elizaurreak ere txukuntzen ditut. Esan beharra dago Aramaion gura adina lan dagoela. Orain, adibidez, belarra mozten hasiko naiz, eta maiatzetik aurrera hilero ia bi bider moztu beharra dago. Hortaz, buelta guztia bukatu orduko, berriro ere hasi behar. Gero, ureztatu, landareak aldatu... Horren harira, azken urtean aldatu egin dut landare-sistema. Negurako landare batzuk eta udarako beste batzuk ipini beharrean, kentzen eta botatzen ez ibiltzeko, erabaki nuen aldatu behar ez diren landare batzuk ipintzea: landare bizikorrak. Lauzpabost urte-edo irauten dute. Iaz ipini nituen, ea ba, zela irteten den esperientzia. Batzuk galduko dira baina... **Zuhaitz Egunak eta halakoek erakusten diete zerbait gazteei?** Nik uste dut baietz. Nik neuk badaukat esperientzia herrian,

eta gazteekin hezitzaile moduan ibili behar izaten dut askotan. Oraingo mutikoei pentsatzen dute guztia dela jai-jai; San Mamesen baleude moduan ibiltzen dira parkean futboleak. Urtero ibiltzen naiz errietan. Eta txarrenak euren gurasoak izaten dira; umeen ondoan egoten dira eta ez dute ezer esaten. Ez dago errespeturik, oro har. Era berean, umei kontuz ibiltzeko esplikatu gero, batzuek kasu egiten dute.

Horrenbeste lore ezagututa, zein da zuretako lorerik politena?

Uf! Mordoa daude... Bat esatearren: arrosa oso polita da, batez ere bariatate handia dagoelako. Ehunka mota dago. Horien artean, bikoitzak dira niretako politagoak. Hortentsiak ere oso politak dira.

Gure bizimodu azkarrerako zein lore gomendatuko zenuke?

Ia denak. Zailenak gardeniak eta azaleak dira. Bestela, jendeak kasu larregi egiten die landareei. Landareak bakean utzi behar dira. Urtero apur bat kimatu eta loreak igartzen zaizkienean, orduan kendu; landareei lana errazteaz gainera, landareek lore gehiago botako dituzte. Eta lurra siku dagoenean bota behar da ura.

“Esperimentuen arabera, Beethovenekin landareak gehiago hazten dira”

ERRETRATUZAHARRA

Roneo fabrikako enpatroia zela-eta

Santu kontuak izango ditugu hizpide jarraian. Baina kontu bereziak dira. Hasteko, joan den mendearen erdialdera jo behar dugu. Eta Roneo lantegia izango da gure protagonista.

Sasoi hartan, Garibain zegoen altzarien lantegia, gaur egun Roneoko etxeak dauden lekuan, hain zuzen ere. Kontua zera da: herriko fabrika guztiek zutela euren patroia, Zerrajerakoek, urtzailleek... Baina Roneoek ez zuten halakorik. Horren ondorioz, gure berriemaileak kontatu digu santu bat euren dako hartzea erabaki zutela, Roneorako. Eta hala egin zuten. Urriaren 13a aukeratu zuten data moduan, San Eduardo eguna, hain justu ere. Eta patroia eguna iristen zenean, jai hartzen zuten eta zaindariaren eguna ospatzen zuten. Hala, batzuetan bazkaria egiten zuten Toki Argin. Kontuan hartuta sasoi hartan zegoen gosea, gehienendako garrantzitsua izaten zen bazkari hura, behintzat egun hartan ondo ase arte jateko aukera zuten-eta. Beste batzuetan,



futbol partiduak ere jokatzeko zituzten: ezkonduak ezkongabeen kontra. Eta noiz edo noiz, autobusa hartu eta txangoa egiten zuten norabait.

Horietako txango batean ateratakoa da, hain justu ere, oraingo asteko foto zaharra. 50eko hamarkadako amaiera edo 60ko hamarkadako

hasiera ingurukoa da. Egun hartan Logroñora joan ziren Roneoko langileak. Argazkian ikusten dituzuen horiek pintura saileko emakumeak dira.

Honako hauek, goian, ezkerretik hasita: Belen Aranburuzabala, Luisa Sagasta, Dolores Iria, Juanita Azkargorta, Carmen Mondragon eta Pilar

Uranga. Eta beheko hirurak honako hauek dira, ezkerretik hasita: Rosario Mondragon, Felisa Altuna eta Margarita Pagoaga (zutik).

Argazkia: Pilar Uranga.

Informazioa: Iñaki Orue

Urtea: 1959-60 edo 1961.

NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

Babes ofizialeko etxebizitzak

Altamiran babes ofizialeko etxebizitzak egin zituzten 1990ean. Etxe horietan bizi izateko 521 herritarrek egin zuten eskaria. Hala ere, diru iturri eta behar pertsonalak kontuan izan eta gero, 362 lagunek izan zuten etxea lortzeko aukera. Azken hamalau urte hauetan etxebizitzaren gaineko egoera asko aldatu da, eta egun, herritar asko daude etxebizitza sozialaren beharrean.



≈ 1990 Egia da Altamirako etxebizitza horiek badutela alde txar bat: erdialdetik urrun daude, eta ia beharrezkoa da autoa.



2004 Hala ere, Arrasaten etxebizitza gutxi dauka Altamirakoek duten ikuspegi ederrarekin, eta baita hango lasaitasunarekin ere.

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea E-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABAETA

OGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarrak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartea, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER


Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
* zapatuak: 08:00-14:00

BITXORI
ile apaindegia

Erdiko kale 52
Tel.: 943 79 88 32

Maizatz
ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka, 3 bajo · Musakola
ARRASATE · Tf. 943 79 58 78

JADE
ILEAPAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILEAPAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Lapuri 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65

AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Lore

Olarte 10 · ARRASATE · 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORRA O'NEAL Ayer HR BOTHERM VALMONT